



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko maiatzaren 24a

75. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Aragoi ibaiaren ibarreko udalerrietan errepideak hobetzeko aurreikusitako jarduketei buruzkoa. Carlos García Adanero jaunak egin du (2. or.).
- Galdera, garraio publikoan gazteentzako eta adinekoentzako tarifa laua eta arrazoizkoa eskaintzeko aukerari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (2. or.).
- Galdera, Mina Muga proiektuari buruzkoa. Rubén Velasco Fraile jaunak egin du (3. or.).
- Galdera, Europako Batzordeak exijitutako murrizketek Nafarroarentzat izanzen dituzten ondorioei buruzkoa. Jokin Castiella Imaz jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, Hezkuntza Bereziko Andrés Muñoz Garde ikastetxe publikoak ikastetxea kokalekuz aldatzeko egin duen proposamenari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (4. or.).
- Galdera, Iruñeko Udalak udaleko haur eskolen gainean erabakitako aldaketa geldiarazten duen auto judizialaren ondoren sortu den egoerari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, eremu ez-euskaldunean dauden ikastetxeetako Haur eta Lehen Hezkuntzako euskarazko postuei buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegui jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroako Unibertsitatea Klinikarekiko esparru-akordioa lau urterako berritzeari buruzkoa, osasun arreta emate eta transplanteak egin eta horien jarraipena egite aldera. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Unibertsitatea Klinikarekiko esparru-akordioa berritzeari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andreak egin du (7. or.).
- Galdera, jakitekoa zein egoeratan dagoen osasun garraioa gure erkidegoan. María Victoria Chivite Navascués andreak egin du (8. or.).
- Galdera, jakitekoa zein fasetan dagoen sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazioak eta herritarren eskubideak arautuko dituen foru dekretua. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (9. or.).
- Galdera, Gobernuko lehendakariak Nafarroako Erdialdeko alkateekin egin zuen bileraren inguruan egiten duen balorazioari buruzkoa. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (10. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Aragoi ibaiaren ibarreko udalerrietan errepideak hobetzeko aurreikusitako jarduketei buruzkoa.*CARLOS GARCÍA ADANERO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos García Adanero jaunak aurkeztutako galdera, Aragoi ibaiaren ibarreko udalerrietan errepideak hobetzeko aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Carlos García Adanero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomikoko lehendakariordeak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer jarduketa aurreikusi du Nafarroako Gobernuak Aragoi ibaiaren ibarreko udalerrietako errepideak hobetzeko?

Iruñean 2016eko maiatzaren 18an.

Foru parlamentaria: Carlos García Adanero

Galdera, garraio publikoan gazteentzako eta adinekoentzako tarifa laua eta arrazoizkoa eskaintzeko aukerari buruzkoa.*GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, garraio publikoan gazteentzako eta adinekoen-

tzako tarifa laua eta arrazoizkoa eskaintzeko aukerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

2016ko maiatzaren hasieran, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Garraioko Txartel Bateria abian jartzearen berri eman zuen. Txartelaren bidez Nafarroako garraio publikoaren erabilzaileek hiri eta hiriarteko loturak erabili ahalko dituzte, ordainketa sistema bakarrarekin.

Lehenago ere iragarri da gisa horretako ekimenen bat; izan ere, 2015eko ekainean protokolo bat sinatu zuten Iruñerriko Mankomunitateak eta Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Foru Komunitateko Hiriarteko Bidaiari Garraioaren Plan Integrala garatzeko. Horren arabera, bi erakundeak 'elkarlanean ariko dira garraioko-txartel bateratua ezartzeko, hiriarteko nahiz hiriko garraiorako baliozkoa izanen dena.'

Garapen teknologiko eta logistiko horrek denbora eskatzen du, baina aurrerako urratsak egin

beharko genituzke mugikortasuna errazte aldera garraio publikoaren behar handiena duten populazio-sektoreei -alegia, gazteei eta adinekoei- herriartar horiek askotan ez dutelako bestelako baliabiderik eguneroko jardunerako.

Espainiako beste autonomia-erkidego batzuetan eta, gehienetan, Europako erregio askotan, tarifa lauak garatu dituzte, oso eskuragarriak direnak gaztetzat jotzen ahal diren adin-tarteentzat (gutxi gorabehera 26 urtetik beheitikoak) eta 65 urtetik gorakoentzat; halatan, mugikortasuna errazten zaie eta beraien bizi-eremua eguneroko zereginetan zeharkatzeko gonbit egiten zaie, edo aisiarako aukerak eskueran ipintzen zaizkie, ohiko jardueraren osagarri.

Nafarroako Gobernuak asmorik al du gazteen-tzat eta adinekoentzat tarifa lau eta arrazoizko bat eskaintzeko, gure komunitatean garraio publikoa erabiliz mugitu ahal izan daitezen?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 18an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, Mina Muga proiektuari buruzkoa.**RUBÉN VELASCO FRAILE JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Rubén Velasco Fraile jaunak aurkeztutako galdera, Mina Muga proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Rubén Velasco Fraile jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Mina Muga proiektuari dagokionez, hasi al du Geoalcali enpresak parte-hartze publikorako plana, Nafarroako Gobernuak iradokitzen ziona? Nafarroako Gobernuak helarazi al dio Geoalcaliri aipatu planean agertu beharreko gutxieneko irizpiderik? Nafarroako Gobernuak jaso al du Mina Muga proiektuari buruzko dokumentazio gehiagorik Estatuko Administrazio Orokorrarengandik?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 19an

Foru parlamentaria: Rubén Velasco Fraile

Galdera, Europako Batzordeak exijitutako murrizketek Nafarroarentzat izanen dituzten ondorioei buruzkoa.

JOKIN CASTIELLA IMAZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jokin Castiella Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Europako Batzordeak exijitutako murrizketek Nafarroarentzat izanen dituzten ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Jokin Castiella Imaz jaunak, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Berriki zenbaki eguneratuen berri izan dugu, Espainiako administrazio publikoek beraien gain hartutako zor erraldoiari buruzkoak (BPGaren % 100 baino handiagoa) bai eta Europako Batzordeak exijitutako murrizketen berri ere. Aipatu murrizketak 8.000 milioi eurotik gorakoak izanen lirateke datozen bi urteotan. Egoera hori dela eta:

Zure Departamentuaren ustez, zer eragin izan dezakete Nafarroarentzat murrizketa exijentzia horiek?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 18an

Foru parlamentaria: Jokin Castiella Imaz

Galdera, Hezkuntza Bereziko Andrés Muñoz Garde ikastetxe publikoak ikastetxea kokalekuz aldatzeko egin duen proposamenari buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, Hezkuntza Bereziko Andrés Muñoz Garde ikastetxe publikoak ikastetxea kokalekuz aldatzeko egin duen proposamenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Nolako urratsak egin ditu Hezkuntza Departamentuak, Hezkuntza Bereziko Andrés Muñoz Garde Ikastetxe Publikoak ikastetxea kokalekuz aldatzeari buruz egin duen proposamenari dagokionez?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 19an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Galdera, Iruñeko Udalak udaleko haur eskolen gainean erabakitako aldaketa geldiarazten duen auto judizialaren ondoren sortu den egoerari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Iruñeko Udalak udaleko haur eskolen gainean erabakitako aldaketa geldiarazten duen auto judizialaren ondoren sortu den egoerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako

Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak maiatzaren 26ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentua edo Nafarroako Gobernuko beste departamenturen bat harremanetan al dago Iruñeko Udalarekin, sortu den egoerari aurre egite aldera, azken horrek Iruñeko Udaleko haur eskolei buruz erabakitako aldaketa geldiarazten duen auto judizialaren ondoren?

Epailleak Iruñeko Udaleko eskoletarako agindu duen geldiarazpena dela-eta, departamentuak asmorik ba al du araudirik ezartzeko edo aldatzeko, eragin egiten dienik funts publikoak jasotzen dituzten Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan haurrak 2016-2017 ikasturterako onartzeko prozedura arautzen duen Hezkuntzako zuzendari nagusiaren otsailaren 15eko 26/2016 Ebazpenean jasotako datei? ·

Zer balorazio egiten du eta zer ondorio aurreikusten du sortu den egoera dela-eta?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 19an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, eremu ez-euskaldunean dauden ikastetxeetako Haur eta Lehen Hezkuntzako euskarazko postuei buruzkoa.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako galdera, eremu ez-euskaldunean dauden ikastetxeetako Haur eta Lehen Hezkuntzako euskarazko postuei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Carlos Gimeno Gurpegui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, maiatzaren 26ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

60/2009 Foru Aginduak, zeinaren 12. artikuluko 3. idatz-zatiko c) letra aurki indargabetuko baita, betetzen zailak diren lanpostuetarako kontratazioa arautzen du. Kalifikazio hori Erronkarin,

Otsagabian, Garraldan, Luzaiden eta Zugarramurdin dauden lanpostuek izanen dute.

Gai horri dagokionez, foru agindu berriak, laster argitaratuko denak, honako hau adierazten du 12. artikulua 4. idatz-zatian:

“Hezkuntza Departamentuak ondoz ondoko hiru ikasturtetan kontratatuko ditu, baita irakaspostua funtzionario batek de facto beterik gertatzen denean ere, edo ikastetxean horren beharra desagertzen denean edo behar hori aldatu eta pasatzen denean lanaldi erditik behekoa izatera, edo ibiltaria izatera, edo izangaiantzat derrigorrezkoa ez izatea dakarten instrumentu edo teknika gaitasunak eskatzen dituen izatera”.

Herriak: Erronkari, Otsagabia, Garralda eta Luzaide, eta Arantzako, Beteluko, Goizuetako eta Urdazubi-Zugarramurdiko DBH. Baita euskarazko Haur eta Lehen Hezkuntza ere, eremu ez-euskalduneko ikastetxeetan.

Zein zirkunstantzia daude euskarazko Haur eta Lehen Hezkuntzako irakaspostuetan eremu ez-euskalduneko ikastetxeetan, horiek betetzen zailak diren lanpostuetat jotzeko?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 19an

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, Nafarroako Unibertsitatea Klinikarekiko esparru-akordioa lau urterako berritzeari buruzkoa, osasun arreta emate eta transplanteak egin eta horien jarraipena egite aldera.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Unibertsitatea Klinikarekiko esparru-akordioa lau urterako berritzeari buruzkoa, osasun arreta emate eta transplanteak egin eta horien jarraipena egite aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak iragarri du lau urterako berrituko dela Nafarroako Unibertsitatea Klinikarekin osasun arreta emateko eta transplanteak egin eta horien jarraipena egiteko sinatutako esparru-akordioa. Hori dela-eta, honako hau jakin nahi genuke:

Zein izanen da itun horren helburu zehatza?

Zer aldaketa egiteko asmoa duzue, UPNko aurreko Gobernuak Nafarroako Unibertsitatea Klinikarekin negoziatu zituen baldintzekin alderatuta?

Zein pauso aurreikusi ditu Nafarroako Gobernuak, itunen eta bideratzeen gastua apurka-apurka murrizteko eta baliabide publikoak indartu eta optimizatzeko?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 19an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Nafarroako Unibertsitatea Klinikarekiko esparru-akordioa berritzeari buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Unibertsitatea Klinikarekiko esparru-akordioa berritzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak 2016ko maiatzaren 26ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Unibertsitatea Klinikarekiko esparru-akordioa berritzearen gaineko azken informazioari jarraikiz, aldatu al da, eta nola, itun horren xede zehatza, oraingoarekin alderatuta? Zer iraupe izanen du itun horrek, eta zer bide erabiliko dira jarraipena eta kontrola egiteko? 2013an one-

tsitako foru legea nola betearazteko asmoa du, Nafarroako Ospitalegunean transplanteak egiten hasteko lau urteko epea zehazten duena?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 20an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Galdera, jakitekoa zein egoeratan dagoen osasun garraioa gure erkidegoan.

MARÍA VICTORIA CHIVITE NAVASCUÉS ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Chivite Navascués andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zein egoeratan dagoen osasun garraioa gure erkidegoan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderen eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, maiatzaren 26ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Zein egoeratan dago osasun garraioa gure erkidegoan?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Galdera, jakitekoa zein fasetan dagoen sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazioak eta herritarren eskubideak arautuko dituen foru dekretua.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zein fasetan dagoen sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazioak eta herritarren eskubideak arautuko dituen foru dekretua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-teko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak maiatzaren 26ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestazioak eta herritarren eskubideak arautuko dituen foru dekretua izapidetze-prozesuan dago.

Horregatik guztiagatik, hauxe jakin nahi dugu:

Zein fasetan dago foru dekretuaren izapidetzea, eta noizko aurreikusten da Nafarroako Gobernuak hura behin betiko onetsi eta, horrenbestez, hura indarrean sartzea?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Gobernuko lehendakariak Nafarroako Erdialdeko alkateekin egin zuen bileraren inguruan egiten duen balorazioari buruzkoa.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Gobernuko lehendakariak Nafarroako Erdialdeko alkateekin egin zuen bileraren inguruan egiten duen balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eledun eta Nafarroako Gorteetako kide den José Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak erantzun diezaion:

Nolako balorazioa egiten du Gobernuko lehendakariak Nafarroako Erdialdeko alkateekin egin zuen bilerari buruz?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

